



(m) 2001

**Hegoafrika/Bilbo.** Hegoafrikako hamabost artistaren lanak jarri dituzte Rekalde aretoan. Erakusketa, *Disolacion* izenburukoa, maiatzaren 12ra arte egongo da ikusgai.

**EHGAM/Bera.** Euskal Herriko Gay Askapenerako Mugimenduarien 25 urteurrena ospatzeko, erakusketa ibiltaria jarri dute Berako kultur etxean, hilaren 27a arte.

## Antzerkia

**'Ardoaz'/ Eskoriatza.** Ander Lipusek eta Antzerkiola Imaginarioak *Ardoaz* bakarriketa Eskoriatzako HUIHE-ZI unibertsitatean aurkeztuko dute, gaur, 18:30ean.

**'Neskapolitan'/ Aretxabaleta.** Kaske-ta Kabaretak *Neskapolitan* antzez-lana taularatuko du, bihar, ostirala, Udaletxe Zaharrean, 22:30ean.

**'Ondo esan beharko'/ Soraluze.** Ramon Agirrek *Ondo esan beharko* ikuskizuna aurkeztuko du, kiroldegiko erakusketa aretoan, bihar, 22:15ean.

**'B olivetti poetiko'/ Ondarroa.** Antzerkiola Imaginarioak *B olivetti poetiko* antzez-lana taularatuko du, asteartean, Ondarroako Kafe Antzokian. Saioa 20:30ean izango da.

## Zinema

**80ko hamarkadako zinema independentea/Azkoitia.** Matadero Zinematogramak 80ko hamarkadako zinema independenteari buruzko zikloa eskainiko du gaurtik igandera bitartean. Gaur, *Permanent vacations* (Jim Jarmusch), bihar *Recluida* (Sheila McLaughlin eta Lynne Tillman), larunbatean *Underground USA* (Eric Mitchele) eta igandean *Tu no eres yo* (Sara Driver). Filmak Mataderoan emango dituzte, 20:30etik aurrera.

**'La ducha (Shower)'/ Bera.** *La ducha (Shower)* filma emango dute, gaur, Berako kultur etxean, 20:30ean. Filma jatorrizko bertsoan (mandarinez) emango dute, gaztelaniazko azpitituluekin.

**'Ekialdea ekialde'/ Iruñea.** *Ekialdea ekialde* (Damien O'Donnell) filma euskaraz emango dute, bihar, 20:30ean, Golem Baiona aretoan.

**'Gato negro, gato blanco'/ Bergara.** Emir Kusturicaren *Gato negro, gato blanco* filma emango dute, igandean, 18:15ean, Bergarako gaztetxean.

**'El gabinete del doctor Caligari' eta**

**'Nosferatu'/ Tolosa.** *El gabinete del doctor Caligari* eta *Nosferatu* beldurrezko film klasikoak emango dituzte, heldu den igandean, Tolosako Bonberenean. Saioa 20:00etan hasiko da.

**'La estrategia del caracol'/ Leioa.** *La estrategia del caracol* (Sergio Cabrera) filma emango dute, igandean, 18:30ean, Udondo gaztetxean.

## Hitzaldiak

**Drogak eta gazte mugimendua/ Leioa.** Drogak eta gazte mugimendua hizpide izango dituzte, gaur, 20:00etatik aurrera, Leioako Udondo gaztetxean.

**Nikaragua eta kintxoak/ Bilbo.** Nikaraguari eta kintxoaren egoerari buruzko hitzaldia emango dute, astelehenean, 20:00etan, Kafe Antzokian. Diaporama emanaldia eta erakusketa ere izango dira.

## Bertsolaritza

**Berto afaria/ Iruñea.** Txantreako Euskaldunon Biltoki elkarteak (Ezkaba plazan), berto afaria egingen da, heldu den asteartean. Maialen Lujanbio eta Jexux Mari Irazu ariko dira bertsoetan. Txartelak erosteko tokiak: Ezkaba eta Harpea tabernak (telef: 948-121617 / 948-130083).

## Bestelakoak

**Liburuaren eguna/ Bera.** Liburuaren eguna dela eta, Laminixe BAT antzerki taldeak ikuskaria prestatu du biharko Beran. Hitzaren garrantzia izanen du hizpide ikuskeriak, eta kultur etxean egingen da, 20:00etan.

## Ikastaroak

**Koreografia berriak/ Zarautz.** Gaztelekuak antolatu du ikastaroa, eta apirilaren 20tik ekainaren 22a egingo da, larunbatero, 12:00etatik 13:30era. Hip-hop, funky eta kaleko beste dantza mota batzuk bildu dituzte.

## Deialdiak

**'Operación hazlo tu mismo'.** «Ustezko musika alternatiboa» egoera kaskean dagoela eta, Errenteriako Lobato etxeak deialdi berezia egin du. «Nazkatuta gaude jaialdi denetan talde berak ikusteaz, talde horiek horrenbeste kobratzen ikusteaz eta CD bategatik horrenbeste ordaintzeaz», diote handik igorritako agiri batean. Hori dela eta, Lobato etxeak kideek ekimen berezia jarri dute abian. CD bat aterako dute bertan azaldu nahi duten talde guztiekin; ez da lehiaketa eta ez dago saririk. Nahi duen orok bi edo hiru kantu bidal ditzake, taldearen informazioarekin, eta ondoren talde bakoitzaren kantu bat aukeratu eta diskoa osatuko da. Uztailean, gainera, Errenteriako jaietan, kontzertu bat egingo da diskoan parte hartu duten taldeetako batzuekin. Kantuak ekainaren 15a baino lehen igorri behar dira, helbide honetara: 123 posta kutxa, 20.100 Errenteria. Lobato Etxean ere utz daitezke lanak.

## Jardunaldiak

**Gaztetxearen urtemuga/ Gasteiz.** Gasteizko gaztetxea 14. urtemuga ospatzen ari da egunotan, eta hori dela eta, hainbat ekintza eta ekitaldi antolatu dituzte datozen egunetara-

## LIBURU GOMENDIOA



**Igor Elortzaren** **Bertsolaria**

**Biziaren azala**  
 Xanti Iparragirre ■ Bertsolari Liburuak.

Literatura gomendatzeko nintzen, horixe irakurri dudalako nire apaletan idatzirik. Ipuin liburu bat edo, gogoko ditudalako eta euskaraz oso onak daudelako. Erdaraz ere bai. Nobelaren bat ere izan zitekeen, akordu onak ekarri dizkidan zenbait hartu ditudalako eskuetan. Eta hor ari nintzen, zer edo zeren bila, txoko honetan bertan jada gomendatuak izan diren hainbat liburu baztertuz. Prosaz eta bertsoz osaturiko biografia batekin egin dut topo azkenean. Horrelakoa da bizi-tza.

Bizitza guztiak, ordea, ez dira honelakoak. Ez dira denak Xanti Iparragirrerena bezala-

koak. Hala balitz, ez genuke fikzioaren beharrik ezertarako. Horretantxe aurkituko dugu liburu honen balio nagusia. Benetakotasunean. Lehenengo pertsonan eta adierazkortasun harrigarritz kontaturiko mundualdi hunkigarrian. Egia, benetan. Jon Sarasuak, zera dio hitzaurrean: «XX. mendeko Euskal Herriaren lekukotasun berezia da. Gerra osteko Añarberko haurtzaro eskolagabe isolatutik hasi eta 2000 urtearen atariko errefuxiatu politiko aitonduren bizimodu ezkuraino. 'Biziaren azala' deitzen dio berak esperientziaren emaitzari. Zinez, azala egiteko moduko bizia. Eta mami handikoa».

«Zerbait idatzirik ikusi duzunean, uste izango duzu idazle baten lanarekin egin duzula topo, baina ez; zerbait zailagoarekin burukatu beharko duzu jarraitzekotan», diosku egileak berak. Bihotzez eta belarriz idazten baitu Iparragirrek. Senez eta sentimenduz. Iturritik ura, zigarroari kea legez dario euskaraz eta idazketa txukundu bide diote edizio honetarako. Idazkera berezia, indartsua eta ederra da baturaren emaitza. Harribitxia.

ko. Hauek dira gaurtik hurrengo asteartera gaztetxean izango diren ekitaldiak. Gaur, euskal jai, txalapartari eta bertsolariekin; bihar, 21:00etan, kontzertua, O Jarbanzo Negro taldearekin, eta ondoren chill-out. Larunbatean, kontzertua izango da, 23:00etatik aurrera, Batukada eta Des+Karadas taldeekin, eta ondoren, DJak. Igandean, 20:00etan, Kuku Bazar taldeak Tapin-tapon antzez-lana eskainiko du. Astelehenean, azoka alternatiboa izango da, Kutxiko sarreran, 12:00etatik aurrera, eta eguerdian, berri, poteoa. 15:00etan, herri bazkaria izango da. Bukatzeko, asteartean, 21:00etatik aurrera, kon-

tzertua izango da, Marea taldearekin. Goizaldeko 01:00etan, su ikusizuna izango da.

## Festak

**Euskal presoak Euskal Herrira/ Bilbo.**

Euskal presoak Euskal Herrira jai ospatuko dute bihar 20:30etik aurrera, Kafe Antzokian. Bertan irrintzilariak, Xabier Amuriza bertsolaria eta Gozategi taldeak parte hartuko dute.

**Nafarroaren Eguna/ Baigorri.** Urteroko hitzordua izango dute Euskal Herri osoko nafarrek igandean, Baigorri. Han ospatuko da Nafarroaren Eguna, eta egun osoan mota askotako ekitaldiak izango dira.

argitalpena



**'Aizu!' Pako Aristi-ekin solasean.** Pako Aristi Urrestillako idazlea elkarrizketatu dute *Aizu!* Aldizkariaren azken zenbakian. Ez da, ordea, literaturarekin lotutako elkarrizketa bakarra; Joxemari Carrere ipuin kontalariarekin ere mintzatu dira *Aizu!*-koak. Bestelako erreportaia ugari ere badira AEKren hilabete-karian. Hala, bakarrik bizi diren pertsonen buruzko erreportaia irakur dezakegu, eta baita Bartzelonan martxoan egin zen Europako gailurrari buruzko beste bat ere. La Palma uhartera eta base-ri ekologikoei buruz gehiago jakin nahi baduzue ere jo dezakezue aldizkaria, hor informazio ugari jasoko baituzue. Eta jakina, ez dira falta aldizkarian ohiko atalak: *albisteak, gomendioak, komikia, internet...*